

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beñat Herce LEceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Jose Angel Petralanda Gil
Maidier Landa Ruiz de Azua
Aitor Urrutia Oianguren
Iñaki Madinabeitia Elorza
Rosa Arkarazo Arkarazo
Juan Luis Merino Sanabria.

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamalauko urtarrilaren 28an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beñat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Ezpeleta eta Cantero jaunak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 28 de enero de 2014, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beñat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten los Srs. Ezpeleta y Cantero

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2013/05/28, 2013/07/23, 2013/09/24, 2013/11/26 eta 2013/12/17.

2. ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2013ko abenduaren 14ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berriaz eman da 25. kreditu aldaketa espedientearen onartzeko erabakiaren berri. Hona hemen espedientearen laburpena:

Gastu partidak: transferitu diren kredituak (altak)

PARTIDA	IZENA	HASIERAKO KREDITUA	GEHIKUNTZA	AMAIERAKO KREDITUA
0101.622.451.92.01	ZALDIBAR ANTOKIA EGOKITZEA	140.007,16	36.700,00	176.707,16
0101.227.432.00.07	AZTERKETA ,LAN TEKNIKOAK:HIRIGINTZA	21.200,00	600,00	21.800,00
0201.231.111.00.01	DIETAK,LOKOMOZIO GASTUAK:ZINEGOTZIAK	1.000,00	500,00	1.500,00
0201.421.121.00.01	MANKOMUNITATEA:ADM.OROKORRA	46.654,49	3,00	46.657,49
0401.626.451.30.01	INFORMAZIO-PROZESUETARAKO EKIPOAK:LIBURUTEGIA	-	600,00	600,00
0402.221.455.30.01	ENERGIA ELEKTRIKOA:EUSKAL-TXOKO	347,90	700,00	1.047,90
0404.221.421.10.01	ENERGIA ELEKTRIKOA:KULUNKA	1.804,87	700,00	2.504,87
0406.212.452.30.01	MANTUA:MAKINAK:IGERILEKUA	9.000,00	1.600,00	10.600,00
0102.211.435.00.01	MANTUA: ETXEAK ETA LOKALAK	2.695,00	1.100,00	3.795,00
0401.221.451.20.04	ERREGAIA:KULTUR ETXEA	2.194,50	1.000,00	3.194,50
0103.601.531.00.06	INBERTSIOAK:ELIZATEAK	141.786,28	5.802,59	147.588,87
0501.721.442.10.01	APORTAZIOA:MANKOMUNIT:HONDAKINAK	19.933,52	4,00	19.937,52
GUZTIRA		386.623,72	49.309,59	435.933,31

Gastu partidak: gehitu diren kredituak (bajak)

PARTIDA	IZENA	HASIERAKO KREDITUA	GUTXIPENAK	AMAIERAKO KREDITUA
0701.160.432.00.01	GIZARTE ASEGURANTZA:HIRIGINTZA	21.951,87	4.000,00	17.951,87
0701.160.449.00.01	GIZARTE ASEGURANTZA:OBRA ETA ZERBITZUAK	73.079,32	13.000,00	60.079,32
0701.160.452.20.01	GIZARTE ASEGURANTZA:KIROLDEGIA	17.847,28	6.000,00	11.847,28
0701.160.121.00.01	GIZARTE ASEGURANTZA:ADMON OROKORRA	21.755,22	1.342,59	20.412,63
0701.162.129.00.01	LANGILEEN PRESTAKUNTZA	7.290,00	5.000,00	2.290,00
0303.226.313.70.08	EKINTZAK:EMAKUMEA	3.000,00	1.700,00	1.300,00
0302.226.313.30.08	EKINTZAK:DROGOMENPEKOTASUNA	6.700,00	3.100,00	3.600,00
0302.481.313.30.01	DIRU LAGUNTZA:DROGOMENPEKOTASUNA	2.000,00	1.000,00	1.000,00
0301.227.313.00.31	GIZARTEKO IKASTAROAK	5.500,00	3.100,00	2.400,00
0301.226.313.00.08	EKINTZAK.GIZATE ONGIZATEA	1.600,00	1.600,00	-
0102.221.433.00.01	ARGITERIA PUBLIKOA	102.081,96	6.007,00	96.074,96
0502.481.622.30.01	DIRU LAGUNTZA:FERIXA	3.000,00	1.305,00	1.695,00
0602.431.521.10.01	APORTAZIOA:TELESKO UDAL TELEBISTA	42.361,48	2.155,00	40.206,48
GUZTIRA		308.167,13	49.309,59	258.857,54

Ondoren, Gobernuak Euskal Herrian duen ordezkariak jarritako errekurtsoei buruz hartutako erabakien berri eman da.

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B/14/00016

DATA: 2014/01/17

GAIA: ERREKURTSOAN AGERTZEA

ESPEDIENTEA: 2014IGAP0002

INTERESDUNA: ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO DONOSTIAKO 3. EPAITEGIA

Estatuko Administrazio Orokorrak (Gobernuak EAN duen ordezkariak) administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri du 2013-2015 DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN AURKA.

AAJLko 48 eta 49 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

- 1.- Aurrekarietan aipatutako PLAN ESTRATEGIKOAREN onarpenari buruzko espediente osoaren kopia eskuetsia bidaltzea Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 3. epaitegira.
- 2.- Aipatutako Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsioan agertzea MIGUEL ANGEL OTEIZA ISO prokuradore jaunaren bitartez eta JUAN RAMON UGALDE EGAÑA letratu jaunaren zuzendaritzapean.

Eskoriatzan, 2014ko urtarrilaren 17an

ALKATEA

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B/14/00010

DATA: 2014/01/17

GAIA: ERREKURTSOAN AGERTZEA

ESPEDIENTEA: 2014IGAP0001

INTERESDUNA: ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO DONOSTIAKO 1. EPAITEGIA

Estatuko Administrazio Orokorrak (Gobernuak EAN duen ordezkariak) administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri du EAetik kanpoko espetxetan dauden presoen senideei eta EAetik kanpoko epaitegietara auzipetu bezala joan behar diren eskoriatzarrei garraiorako diru laguntza indibidualak emateko oinarrien aurka.

AAJLko 48 eta 49 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

1.- Idazpuruan aipatutako oinarriei buruzko espediente osoaren kopia eskuetsia bidaltzea Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 3. epaitegira.

2.- Aipatutako Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsuan agertzea MIGUEL ANGEL OTEIZA ISO prokuradore jaunaren bitartez eta JUAN RAMON UGALDE EGAÑA letratu jaunaren zuzendaritzapean.

3.- AAJLko 49.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, espedientean interesa duten guztiei jakinaraztea erabaki hau, eta interesdun horiei epatzea EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 1. epaitegian jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren (prozedura arrunta 7/2014) espedientean demandatu bezala agertu ahal izan daitezen. Demandatu bezala agertzeko bederatziguneko epea izango da.

Eskoriatzan, 2014ko urtarrilaren 17an

ALKATEA

3. BIRIBILGUNE BERRIARI IZENA JARTZEKO PROPOSAMENA.

Hitza eman ondoren, biribilgunearentzat ANTSOTEGI izena proposatzeko batzordeak dituen arrazoiak azaldu ditu Landa andreak. Hona hemen horiek laburtuta:

Proposamena EAJ/PNV-ko zinegotziak egin zuen, eta batzordeak honako hauek hartu zituen kontuan:

- Biribilguneak hirigunearen egituraren erreferentzia garbia bihurtzen direla eta jendeak, sarri, erabileran izena jarri ohi diela.
- Joxe Aranburuzabala Trankilek idatzitako liburuan, biribilgunea dagoen leku berean "Ansoategi" izena agertzen dela, mapa zaharretan. Horrez gain, agiri zaharretan ere jasotzen dela "Ansoategi" toponimoa.

Gainera,

- Udalak eskuartearen darabilen Ikerketa Toponimikoan (bukatu barik dagoena) artxibategian arakatutako agirietan, Ansoategi toponimoa lehenengoz 1790. urtean ageri da Kale baten izena aipatuz. Kale horren aipamena 1876. urtera artekoa da
- Dokumentuetan, ohikoa denez, erdal grafiaz idatzita agertzen da toponimoa, baina Euskaltzaindiak kontsulta egin ondoren, Ansoategi euskal toponimoa denez, bere idazkera egokia "Antsoategi" dela jakinarazi digute.

Bertaratu guztiek jakinaren gainean egonda proposamenaren arrazoiei buruz, eztabaida txiki bat egon da, Merino jauna kexu da beti toponimiatik jotzeagatik horrelakoetan eta izen sozialagoak aukeratzearen aldeko agertu da (ONCEren biribilgunea, odol emaleena, gizate mugimenduen...) eta Urrtia eta Madinabeitia jaunek toponomiarekin lotutako izenak aukeratzearen alde egin dute.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da. Merino jauna abstenituta eta bertaratu-tako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Aurrekarietan labur azaldutako arrazoiengatik, ondorio guztietarako hemen jasotakotzat jotzen direnak, hasiera batean onartzea ANTZOATEGI BIRIBIL-GUNEA izena jartzea herrigunean, Gaztañadi eta Jose Arana kaleen artean, eging-dako biribilgune berriari.

BIGARRENA.- Jendaurrean jartzeko 30 egun naturaleko tramitea hastea, Irargarkia webgunean eta herriko berri ematen duten egoki iritzitako beste komunikabide batzue-tan jarrita. Epe horretan interesdunek alegazioak edo horren kontrako arrazoiak jarri ahal izango dizkiote hasiera batean eman zaion izenari, eta alegazio eta kontrako arrazoi horiek behin betiko onarpenarekin erabakiko dira.

HIRUGARRENA.- Alegazio edo kontrako arrazoirik ez balego, hasiera batean onartu-tako izena behin betikotzat bihurtuko da, eta honako hauek egin beharko dira:

1.- Herriko berri ematen duten komunikabideen bitartez biribilgunearen izen berri hori zabaltzea.

2.- Dagozkion plakak eta seinaleztapen bertikala jartzea onartutako izenarekin, eta dagozkion aldaketak egitea planoetan eta udal dokumentuetan.

4. ESKORIATZAKO UDALAREN KONTRATAZIO PUBLIKOETAN TXERTATU BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK ETA HORIEK EZARTZEKO PROZE-DURA ONARTZEKO HARTUTAKO ERABAKIA BERTAN BEHERA UZTEKO PRO-POSAMENA.

2013ko urtarrilaren 29an izandako Osoko Bilkuran onarpena eman zitzaizen Eskoria-tzako Udalaren kontratazio administratiboan txertatu beharreko hizkuntza baldintzei eta horiek ezartzeko prozedurari.

2014ko urtarrilaren 13an Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzatik bidalitako errekeri-mendua ikusita, Kultura batzorde informatzaileak proposatzen du lehen aipatutako erabakia ondoriorik gabe uztea.

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, Urrutia jaunak aurka bozkatuta, Merino jauna abstenituta eta bertaratutako gainon-tzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eskoriatzako Udalaren kontratazio publikoetan txertatu beharreko hiz-kuntza baldintzak eta horiek ezartzeko prozedura onartzeko 2013ko urtarrilaren 29an hartutako erabakia bertan behera uztea eta, ondorioz, indargabetzea.

Bigarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Estatuko Administrazio Orokorrari.

BOTOAREN JUSTIFIKAZIOA: Urrutia jaunak aurka bozkatu du, presoen familiakoen-tzako laguntzen kasuan, horiek ere Gobernuko ordezkariak errekurrituta, aurrera jo

delako administrazioarekiko auzira iristeraino, eta kasu honetan, aldiz, ez da aurrera jotzen eta erabakia atzera botatzen da; ez du ulertzen zergatik ordezkariak laguntza horiei buruzko informazioa eskatu zionean Udalari ez zen erabakia atzera bota eta kasu honetan bai.

Alkateak erantzun dio horren arrazoia dela gai hori aztertu duten legelariak jakinarazi dutela arrisku handia dagoela administrazioarekiko auzian "euskararen" oso aurkako epaia jasotzeko.

5. DATU PERTSONALEN FITXATEGI BERRIA SORTZEA: "ORDUTEGIEN KONTROLA".

Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak bere 2. artikuluan ezartzen du lege hori aplikatuko zaiela euskarri fisikoan jasotako izaera pertsonaleko datuei, baldin eta euskarri horrek ahalbidetzen badu datu horiek tratatzea, bai eta sektore publiko zein pribatuak datu horien gainean gerogarrenean egin dezakeen erabilera-modalitate orori ere. Era berean, 20. 2 artikuluan ezartzen ditu fitxategiak sortzeko edo aldatzeko erabakiak jaso behar dituenak.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeko 4. artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzeko erabakiak edo xedapenak derrigorrezko aipamen guztiak jaso beharko dituela eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo lurralde historikoko aldizkarian argitaratuko dela, fitxategia duenaren eginkizun edo aginpideak zein lurralde-eremutara iristen diren kontuan hartuta.

Aipatutako araudietan jasotako baldintzetan datu pertsonalen fitxategi berri bat sortzeko, Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Xedapen honen I eranskinean zerrendatutako datu pertsonalak jasoko dituen fitxategia sortzea. Fitxategi hori Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 20. Artikuluan jasotakora eta bertan aurreikusitako baldintzetara egokitu beharko da, eta baita lege hori garatzeko xedapenetan jasotakora ere.

Bigarrena.- 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 38/2005 Dekretuko 2. artikuluan jasotakoa betez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari horren berri ematea. Dekretu horretako 2. artikuluan jasotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzeko egindako eragiketen berri emango diotela Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Datuak Babesteko Erregistroan inskripzioa egiteko; eta horretarako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egindako eredu normalizatuaren bidez, sortu, aldatu edo ezabatzeko xedapen edo ezazpenaren kopia bidali beharko dela.

Hirugarrena.- Aipatutako fitxategia sortzeko iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen den egunaren biharamunean indarrean sartu dadin .

I ERANSKINA

ORDUTEGIAK KONTROLATZEKO FITXATEGIA

1.- Fitxategiaren izena: Ordutegiaren kontrola.

2.- Helburua eta aurreikusitako erabilerak: Eskoriatzako Udalarentzat lan egiten duten langileen orduak kontrolatzea eta oporrak, baimenak eta lizentziak kudeatzea.

3.- Zein pertsona edo talderen datu pertsonalak lortu nahi dira: Eskoriatzako Udalarentzat lan egiten duten langileak.

4.- Datu pertsonalen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

4.a) Datuen jatorria: interesduna bera.

4.b) Bilketa: interesdunak berak betetako formularioak paperean edo euskarri informatikoan, edo telematikoki oporren, baimenen eta lizentzien kasuan.

Sarrerarekin, lantokiko egonaldiarekin eta irteerekin lotutako datuak sisteman integratuko dira txartel edo hatz-marka bidez.

5.- Fitxategiaren oinarrizko egitura eta datuen deskribapena:

5.a) Oinarrizko egitura: fitxategian langilea identifikatzeko datuak jasotzen dira, hala nola, abizenak, izena eta NANA, hatz-markak, kodea, ezaugarri pertsonalei buruzko datuak -esaterako enpresan duen antzintasuna, lantokia, oporrak, baimenak, lizentziak- eta aldi baterako ezintasun egoerak edo istripuak.

5.b) Datuen deskribapena:

Datu identifikatzaileak:

- Hatz-marka
- Erabiltzaile kodea
- Abizenak eta izena
- Nortasun Agiria

Datu pertsonalak:

- ✓ Administrazio edo lan egoerak
- ✓ Oporrak, baimenak eta lizentziak
- ✓ Lantokian egondako denbora
- ✓ Lantokia
- ✓ Aldi baterako ezintasun egoerak, gaixotasun profesionalak edo lan istripuak; horiek, bakar-bakarrik baimenak, lizentziak, oporrak eta ordutegiaren kontrola egoki kudeatzeko erabiliko dira.
- ✓ Datuak prozesatzeko erabilitako sistema: Misto
- ✓ Datuak jakinarazteko aurreikuspena: ez dago aurreikusita, baina, fitxategiaren titularraren departamentuen artean datuak jakinarazi ahal izango dira, betiere, datuen prozesamendua bat badator langileak libre eta legez onartutako harreman juridikoarekin, eta hori garatzeak, betetzeak eta kontrolatzeak behar beharrezkoa egiten badu tratamendu hori beste fitxategi batzuekin lotzea.
- ✓ Hirugarrenei datuak lagatzea: Ez da aurreikusten
- ✓ Datuen nazioarteko transferentzia: Ez da aurreikusten
- ✓ Fitxategiaren organo arduraduna: Eskoriatzako Udala
- ✓ Sarrera, zuzenketa, ezabaketa eta aurkaketa eskubidea zein

departamentutan gauzatu: Eskoriatzako Udala

✓ Segurtasun neurriak: oinarritzakoa

6. OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZAKO 15. ARTIKULUARI EGINDAKO ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Udalbatzarrak, 2013ko uztailaren 22an egindako bilkuran, oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioaren gaineko udal ordenantzako 15. artikulua aldatzea onartu zuen hasiera batean. Aldaketa honekin debeku berri bat ezarri zen:

17.- Aparkatzeko txartela duen ezinduaren gidari laguntzaileak bi ordu baino gehiago ezinduenezako erreserbatutako aparkalekuetan.

Erreklamazioak eta iradokizunak jartzeko jendaurrean egoteko tramite aldia irekita, pertsona askok egin dituzte alegazioak.

Era berean, udaltzaingoak eta udal gizarte zerbitzuek jakinarazi dutenez, bilera batera dei egin zitzaizen aparkatzeko txartela duten herritar guztiei. Bilerara etorritakoek ekarpenak eta iradokizunak egin zituzten edo kexak azaldu ordenantzaren aldaketari eta aparkatzeko txartelaren kudeaketari buruz.

Udaltzainek egindako proposamena ikusita, eta bilerara etorritako herritarrekin Udal honek hartutako konpromisoak betetze aldera, Pertsonal batzordeak erabaki proposamena egin du:

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Ondoren esango den moduan behin betiko onartzea arau berria, eta Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioaren gaineko udal ordenantzako 15. artikuluan sartzea.

17.- Mugikortasun urriko ezinduenezako aparkatzeko txartelaren titularrak edo titularraren gidari-laguntzaileak bi ordu baino gehiago Eskoriatzako herri gunean berriantzeko erreserbatutako aparkalekuen artean denbora mugatuz erabiltzeko berriaz seinaleztatutako aparkalekuetan.

Bigarrena.- Alegazioak jarri dituzten guztiei jakinaraztea erabaki hori hartzen dela aurkeztutako ekarpen eta kexen aurrean Udalak hartutako konpromisoen kaltetan gabe. Konpromisoak honako hauek izan ziren:

- Osasun zentroaren inguruko aparkalekuen egoera ikustea, eta gaur egun dauden arkitektura-oztopo guztiak kentzeko egon daitezkeen aukerak aztertzea.

- Kiroldegiaren inguruan dauden aparkalekuetako bat desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetzea.

Hirugarrena.- Adostu ez ziren alegazio, iradokizun edo kexa guztiak ez onartzea, eta ondorioz, horiei buruzko inolako konpromisorik ez hartzea.

BOTO AZALPENA: Urrutia jaunak esan du alde bozkatu duela proposamen horrekin kaltetuekin beraiekin adostutakoa gauzatu gura delako.

7. UDAL ORDEZKARI BERRIAK IZENDATZEA DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEKO GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDERAKO ETA INGURUMEN BATZORDERAKO.

Udalbatzarrak egindako bilera banatan Udal honen ordezkariak izendatu zituen Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntarako eta Ingurumen batzorde informatzaile-rako eta Garapen Ekonomikoa eta Turismo batzorde informatzaile-rako.

Pertsonal batzorde informatzaileak ordezkari berriak izendatzea proposatzen du.

Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta Urrutia jauna eta Merino jauna abstenituta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: Debagoieneko Mankomunitateko organoetako batzuetan Udal honetako ordezkari izateko egindako izendapenak balio gabe uztea, eta horien ordezkari ondo-rengo zinegotziak izendatzea:

- MANKOMUNITATEKO GOBERNU JUNTA

Titularra: Beinat Herce Leceta
Ordezkoa: Igor Ezpeleta Oregi

- INGURUMEN BATZORDEA.

Titularra: Beinat HERce LEceta
Ordezkoa: Igor Ezpeleta Oregi

- GARAPEN EKONOMIKOA ETA TURISMO BATZORDEA:

Titularra: Igor Ezpeleta Oregi
Ordezkoa: Beinat HERce LEceta

8. UDAL PILOTALEKUARI "JOSEBA IÑURRATEGI" IZENA JARTZEKO PROPOSAMENA.

Kultura batzorde informatzaileak proposamena egin du, kirol azpibatzerdeak proposatuta, udal pilotalekuari "JOSEBA IÑURRATEGI" izena jartzeko.

Alkateak azaldu du Iñurategi jaunari lehenengo omenaldia egin eta gero proposamena udalbatzarrera ekartzearen arrazoia izan dela isilpean gorde nahi zelako eta omenduarentzako ezusteko proposamena izatea nahi zelako.

Txanda eman ondoren, ondorengoek hitz egin dute:

Urrutia jauna: gai honetan ez nuke bozkatzerik gura, eta horretarako arrazoia azaldu gura dut. Lehen toponimia bai toponimia ez eztabaidatu dugu, eta niri, herrian ez zait gustatzen pertsonen edo elkarten izenik jartzetik, nahiago dut toponimiatik jotzea, eta uste dut Iñakik horren gaineko arrazoi sendoak eman dituela. Hala ere, norbaitek merezi badu pilotalekuak bere izena izatea, hori Iñurategi da, neurri handi batean berari esker baitago gaur egun kirol taldean pilota arloa. Horrez gain, esan nahi dut lotsagarria iruditzen zaidala hori guztiori nola egin den. Igor Ezpeletaren posta elek-

troniko bat jaso nuen joan zen abenduaren 24an (posta irakurri du). Posta horretan ezustekoarena komentatzen da, baina, benetan esaten dena da “presaka eta korrika ibili garenez, hurrengo osoko bilkuran aztertuko da”. Niri ez zait zentzuzkoa iruditzen esatea “inork jakiterik nahi ez genuenez”, hori umekeria iruditzen zait. Pasatu bazazue pasatu egin zaizue, eta ez da ezer gertatzen, baina, ezin zitekeen hilabete bat itxaron? Plan estrategikoan dator omenaldia Gabonetan izan behar zela? Esaten da gaia irailetik lantzen ari zinetela, eta pasa bazazue pasa zaizue. Uste dut gauza horiek gehiago errespetatu behar direla. Umekeria iruditzen zait eta errespetu falta udalbatzarrari inork jakin gabe izkutuan gorde nahi zela esatea. Horri buruz, eta izenak jartzen hasita gaudenez, JUAN PALOMO eraikina jarri geniezioke, eta hori, Alkatezako lehioan dauden usoen sinbologiagatik eta bertan, espainieraz esaten den bezala, “como Juan Palomo, yo me lo guiso, yo me lo como” egiten delako. Amaitzeko esan du derrigorrezkoa bazen osoko bilkurara proposamena ekartzea, kontrako txosten bat egon beharko litzatekeela, eta de facto prebarikazio bat egiten egon gaitzkeela.

Alkateak erantzun dio ados dagoela prozedura jarraitu beharrekin, baina, aparteko kasu bat dela, ez ohikoa.

Madinabeitia jauna ere prozedura jarraitzearen alde agertu da, eta esan du alde bozkatuko duela ohitura delako pilotalekuei pertsonen izenak jartzea.

Urrutia jaunak berriz ere dio ahal izango balu ez lukeela bozkatuko, NORBAITEK MEREZI BADU FRONTOIARI BERE IZENA JARTZEA, HORI JOSEBA IÑURRATEGI dela, baina, gauzak nola egin diren kontuan izanik ezin duela alde bozkatu, eta horregatik, abstenitu egingo dela.

Eztabaida amaituta, eta Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, Urrutia jauna abstenituta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Eskoriatzako udal pilotalekuari “JOSEBA IÑURRATEGI” izena jartzea.

9. ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Baja ematea aurreko ekitaldietan onartutako eskubide hauei, eta ko-bratutakoa itzultzeko agintzea.

(*)KONTZEP/EPEA/Z KIA	ZENBATE-KOA (€)	ZERGADUNA	ZERGATIA
003.201302.199	57,87	AUTOS RIBELOGA, S.L.	UR IRAKURKETAREN AKATSA
003.201303.153	175,35	ARGIGAY MONDRAGON LAN- DER	UR IRAKURKETAREN AKATSA
003.201303.1513	83,28	PZ DE EULATE MTNEZ DE LA HIDALGA ENRIQUE	UR IRAKURKETAREN AKATSA

10. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ALDATZEA: 9. ERANSKINEAN “KIROL INSTALAZIOAK ETA KIROL ZERBITZUAK ERABILTZEA” TARIFA BERRI BAT SARTZEA.

Zerbitzu publikoen eta jarduera administratiboen tasa arautzen duen Ordenantzaren 9. eranskina "Kirol instalazioak eta kirol zerbitzuak erabiltzeagatiko tasa" aldatzeko proposamena ikusita, Udaltzarrak, bertaratutako udaltzordekide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Proposatutako aldaketa onartzea, hau da, honako tarifa hauek sartzea:

100 sarrerako bonoak..... 300 euro

Urritasun psikikoa duten pertsonentzako gimnasia ikastaroak 24 euro/hiruhileko

Bigarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

Hirugarrena.- Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egingo ez balitz.

11. EZKER ANITZA-IU-K ESKATUTA SORTUA ETA EMAKUME HAURDUNAREN ESKUBIDEAK BABESTEKO LEGE AURREPROIEKTUA ATZERA EGITEKO AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Merino jaunak jakinarazi du emakume elkarte edo mugimenduren batek mozioren bat aurkeztu izan balu berak berea kenduko lukeela. Baina, horrelakorik izan ez denez, berea mantentzen duela.

Ondoren, osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

ZIOEN AZALPENEA

Emakumeen beren amatasunaren gaineko erabakitze eskubidea, ezin da eztabaidatu emakumeen erabaki librea kontuan izan gabe. Funtsezko eskubidea da eta, halako bezala, ezin da estamentu erlijioso eta sozial atzerakoienekiko trukea izan.

Haurdunaldiaren borondatez eteteko eskubidea, emakumeek libreki erabakitze, interferentziarik gabe, baldintzatzailerik gabe, zaintzaile eta zigorrik gabe, zaintzaile eta zigorrik gabe, Funtsezko Eskubidea da.

1985ean, gure herrian, PSOE-ren gobernuarekin, despenalizazio partziala eman zen eta 25 urte pasatu behar izan zuten, 2010era arte, haurdunaldiko borondatezko etenaren lege aurreratuagoaren erreforma baterako, oraindik ere muga askorekin.

Orain PP-k Aurreproiektu murriztailea eta atzerakoia planteatzen ditu, emakumeek bere amatasunaren gaineko erabaki ahalmenari dagokionez askatasunak eta eskubideak urratzen dituena.

Honen aurrean beste lege bat beharrezkoa da:

- *Nahigabeko haurdunaldien aurkako prebentzioa aurreikusi dezala, heziketa-estadio guztietan heziketa sexualarekin, genero ikuspuntuarekin.*
- *Emakumeei baimen diezaiela bere haurdunaldia etetea, unean eta desiratzen dituen arrazoiengatik, murrizketarik gabe, interferentziarik gabe, zaintzailearik gabe eta osasun publikoaren sistema.*
- *Kontzientzia-eragozpena arau dezala, hau mediku atzerakoienaren zuringarria ez dadila izan.*
- *Borondatezko abortua kode penaletik ezaba dezala, bai emakumeentzat bai praktikatzen duten osasun-profesionalentzat.*
- *Metodo antikontzepetibo guztiak sar ditzala osasun publikoaren sisteman.*

- 16-18ko gazteentzat, gurasoen baimena beharrezkoa izan ez dadila.
- Heziketa sexuala eta ugaltze osasunari buruzkoa aurreikusi ditzala, bai osasun-eremuan bai Hezkuntza sisteman.
- Haurdunaldiaren borondatezko etenaren praktikarako, profesional-guztien prestaketa berma dezala eta hau sar dadila medikuntza, erizaindegian eta beste bizibide soziosanitario batzuen ikasketetan.
- Emakumeek bere bizitzaren gainean erabakiak hartzeko ahalmena ez dezala eztabaida, baizik eta bere autonomia bultzatzea.
- Protokolo komuna sar dezala Haurdunaldiaren etena praktikaraiko Osasun-Nazio-Sisteman.
- Lurralde-oreka berma dezala.

Adierazitakoagatik,

Eskoriatzako Udaleko Osoko Bilkurak hurrengo akordio hauek hartzen ditu:

AKORDIOAK

1. *Ministro-Kontseiluak onartutako sortuaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako Lege Aurreproiektua arbuizatzea, emakumeen funtsezko eskubideak murrizten dituelako, bere berehalako erretiratze eskatuz.*
2. *2/2010 Martxoaren 3ko, ugaltze eta sexu osasunaren eta haurdunaldiaren borondatezko etenaren Lege Organikoaren gainean egiten den edozein erreforma, funtsezko eta emakumeen espezifikoa diren eskubideak handitzera bideratuta egon behar da, emakumeek amarik izan nahi duten erabaki ahal izateko moduan.*
3. *Deia egiten diogu gizarteari bere osotasunean mobilizatu eta salatzea Partido Popularraren abortuaren erreforma murriztailearen aurka, eta abortu libre, doakoa, publikoa eta Kode Penatik kanpo, eskubidearen defentsaren alde.*

Hitz egiteko txanda eman du Alkateak.

Iregui andreak esan du bere taldeak mozioaren alde bozkatu behar duela.

Urrutia jaunak dio berak mozioa bat izan arren ez duela aurkeztu PSOeren mozioaren antzerakoa zelako, eta hori aurkeztuta zegoenez, berak ez aurkeztea erabaki zuela. Bere asmoa PSOeren mozioaren alde eta honen aurka bozkatzeko zela. Ondoren, horretarako arrazoiak azaltzeko, testua hau irakurri du: *“NI ez nago abortuaren alde. Ez dut uste benetan inor egongo denik, ezta eskubide bezala aldarrikatzen dutenak ere, eta ez daukat garbi neu ere horien artean nagoenik. Aukera faltsuak planteatuta hizkuntzak egiten digun tranpa ugarietako bat besterik ez da. Kasu honetan, aurka egotearen kontrakoa ez da alde egotea, baizik eta, asko jota, zenbait egoeratan haurdunaldia borondatez etenda gaitz handiago bat saihestea bilatzen duen gaitza.*

Ergela izan behar da erabaki hori hartzen duten emakumeek garçon erara orraztu edo rastak egitearen artean erabakitzen arituko balira bezala erabakitzen dutela esateko. Ez dut esango denak direnik, ez baitut nahi erregea baino erregetiarragoa izaterik, baina, ziur naiz egoera hori pasa dutenek garesti ordaindu dutela negarretan, lo egin gabeko gauetan eta zalantza oinazegarritan bai andan etzan aurretik bai ondoren. Antzeman dezakeenera arte, esango nuke adostasun zabala dagoela gizartean deskribatzen ari naizenaren gainean. Pentsaeraz atzerakoiak direnek ere onartua zuten, beharbada, horretaz gehiegi ez pentsatzen saiatuz, epe legea irtenbide

errealista zela. Gertuko esperientziaren bat izan bazuten, eta zer esanik ez, beraiek bizi izan balute, hatzamar batekin eguzkia ezin estaltzeare uste sendoa handiagoa zen. Eta, araudi irekiago bat aldarrikatzen zutenei dagokienez, sen onak ulertarazi zien hobetu zitekeen arren, zentzuzkoa zela indarrean zegoena. Edozein tonteriagatik lubakiak egiten diren leku batean, gaitza zen horrelako gai zail eta labankorrek horrenbesteko zentzunez bideratuta aurkitzea. Hau zen horietako bat, bere egoaren izenean eta bizitzaren aldeko integrismoaren zerbitzura arituz PPko Alberto Ruiz Gallardon ministroak dinamitatu duen arte. Esan du hitz horiek ez direla bereak, Javier Vizcainorenak direla, bere egiten dituela eta bere alderdiaren iritziarekin bat datozela. Gehitu du ez duela gura abortuaren aurkako bezala agertzerik, uste baitu zenbait egoeretan beharrezkoa dela kalte handiago bat saihesteko, baina, ezin duela IUren mozioaren alde egin abortu libreaz ari delako, eta bere alderdia eta bera ez daudela horrekin ados. Amaitzeko, esan du egungo egoera sozialei egokitutako lege bat behar dela, ez dela oinarrizko eskubide bat, eta mozio horretan abortu librearen alde egiten den defentsaren aurrean aurka bozkatzea beste aukerarik ez dutela.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da. Urrutia jaunak aurka bozkatuta, Madina-beitia jauna eta Arkauz andrea abstenituta, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

12. ESKORIATZAKO UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO MOZIOA SEXU- ETA UGALKETA-OSASUNARI BURUZ ETA HAURDUNALDIA BORDATEZ ETETEARI BURUZ INDARREAN DAGOEN LEGEDIA ESPAINIAKO GOBERNUAK LEGE ORGANIKOAREN AURREKOPROIEKTU BIDEZ BERRAZTERTU NAHI DUELA-ETA.

Mozioa aurkeztu duen udal taldeko bozeramale den Cantero jauna ez dagoenez, eta berak horrela eskatutako posta elektronikoz, mozioa aztertu gabe gelditzen da, hurrengo bilkuran aztertzeko.

13. URTARRILAREN 7KO ATXILOKETEI BURUZ ESKORIATZAKO BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Alkate jaunak ondoren transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

ADIERAZPENA

Urtarrilaren 7an, Auzitegi Nazionalaren aginduz, 8 euskal herritar atxilotuak eta ondoren espetxeratuak izan ziren, ustez ETAko kide zirelakoan. Hortaz, iraganeko gertakari ziruditenak berriro ere errepikatu dira.

Horren guztiaren aurrean, udal honek honako hau adierazi nahi du:

1. *Eskoriatzako Udalak uste du era horretako jarduerak oztopo bat direla gure herriak gaur egun bizi duen testuinguru politikoan, bai eta bakea eta bizikidetzaren demokratikoa ezartzeko prozesua irmotuko delako itxaropen zabalduan ere.*

2- Eskoriatzako Udalak eskatzen du errespetatu daitezela euskal herritar guztien giza eskubideak eta eskubide zibil eta politikoak

3- Eskoriatzako Udalak eskatzen du berehalak eman dadila prozedura horren gaineko ebazpen judiziala. Modu horretara, ez dira urratuko orain atxilo dauden pertsona horien eskubideak.

4- Eskoriatzako Udalak euskal gizarte osoari eskatzen dio jarrai dezala lanean herritar horien eskubide guztien alde eta jarrai dezala eskubide horiek aldarrikatzen, areago testuinguru politiko honetan, denok egin behar baitugu bakea eraikitzeko eta irmotzeko

Inork ez du hitz egin. Bozketa eginda, Madinabeitia jauna eta Arkarazo andrea abstenituta, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak moztioa onartu du.

14. EZKER ANITZA-IU-K ETA ESKORIATZAKO BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA EUSKADI-KUBA ELKARTEAREN IZENEAN ESTATU BATUETAN KONDENATUTAKO BOST KUBATARREI BURUZ ETA BARACK OBAMA PRESIDENTEARI HORIEN ASKATASUNA ESKATZEKO.

Alkate jaunak ondoren osorik transkribatzen den moztioaren xedapen zatia irakurri du.

Badira 50 urte baino gehiago Kubak justifika ezin daitekeen blokeoa pairatzen duela. Estatu Batuetako gobernu guztiek inposatutako blokeoak ondorio larriak eragiten ditu Kubatar herriaren ekonomian, baita bere eguneroko bizitzan ere.

Estatu Batuek, blokeoa sostengatu ez ezik, Miamin kokatutako hainbat talde eta pertsonari babesa ere eskaini diete. Aipatutako batzuek kubatar herriaren kontrako ekintza terroristetan eta bestelako erasoetan parte hartu dute 3500 inguru hildako eraginez. CIA-k datu hauek onartu eta baieztatu ditu desklassifikatutako zenbait dokumentutan zein ekintza horietan inplikaturiko pertsona horien adierazpen publikoetan.

Kubako gobernuak, zilegia den aldetik, hainbat pertsona bidali zituen Miamira bere herritarrek eta ondasun publikoak babesteko. Xedea han bertan ekintza terroristak gertatu baino lehen ezagutu eta, hortaz, ekidin ahal izatea zen.

Pertsona hauetatik bost: Gerardo Hernández Nordelo, Ramón Labañino Salazar, René González Schwert, Fernando González Lloret eta Antonio Guerrero Rodríguez Miamin zeudela, informazio eta prebentzio misioan, Estatu Batuetako agintariek atzeman zituzten 1998ko Irailean. Gobernu estatubatuarrek bere lurraldean nazio atzerritar baten alde lan egitea leporatu zien.

Espetxean 33 hilabete prebentzio gisan eta fidantzarik gabe pasa eta gero, 2001ean epaituak izan ziren. 15 urte eta betiko Kartzela-zigorrek ezarri zizkieten espioitza eta erailketak egiteko konspirazioa leporatuta. Epaian ez zen defentsak adierazitako aringarri bat ere kontuan hartu; aitzitik, epailak kasu bakoitzean fiskaltzak agerrarazi zituen astungarri oro aintzat hartu eta gehienezko zigorra ezarri zien. Horrez gain, esan beharra dago fiskaltzak ez zuela kargu horiek justifikatzen zuen frogarik aurkeztu.

Epaiketa hau Miamin egin zen kubatar-amerikarren elkartearen presiopean eta baita haien propaganda-kanpainapean ere. Halaber, auzipetuei ukatu egin zitzaizen egoitza judiziala aldatzeko aukera. Bi kargu printzipalei dagokienez, hau da, erailketa gauzatzeko asmoa eta konspirazioa, batean zein bestean ezin izan zen deus ez frogatu. Espioitza kasuan, adibidez, ez zen egiaztatu akusatuek Estatu Batuetako gobernuarengandik inongo dokumentaziorik eskuratu zutenik; ulertzekoa dena, akusatuen misioa Hego Floridan dauden ustezko talde terroristei buruzko informazioa lortzea besterik ez baitzen.

Goberneren eta irregulartasunen ondorioz, Nazio Batuek duten Giza Eskubideetarako Komizioak, zeinek lantalde bat duen Atxiloketa Arbitrarioei buruzkoa, ondorioztatu zuen 2005ko maiatzaren 27an atxiloketak hasiera-hasieratik arbitrarioak izan zirela, erruduntzat hartzeko ez zirelako bete ez formaltasun legalak ez eta Estatu Batuetako legearen beraren jardunbidea.

Beste nazioetako agenteen atxiloketetan presoak elkartrukatzea da gobernuen ohitura eta prozedurak. Orain dela gutxi, Estatu Batuetako gobernuak errusiarren gobernurako lan egiteagatik espioitzat hartutako hainbat pertsona elkartrukatzea onartu du.

Kasu honetan, Kubaren kontrako blokeoa eta bost pertsona hauek bidegabeki zigortzera eraman zituzten motibazio politikoek egoera honi irtenbide bat ematea eragozten dute. 15 urte baino gehiago pasatu dira Estatu Batuetako espetxe batean sartu zituztenetik. Munduko milioika gizon eta emakume, estatu-etako presidente ohiak barne, intelektual ospetsuak, kultura gizonak, zientzialariak, kirolariak, mugimendu sozialak, sindikatuak, etab. mintzatu dira injustizia honen bukaera eskatzeko.

Bostetako bat, René González, Kuban bizi da jadanik, 13 urte baino gehiago kartzelan egon eta gero eta 2014. urteko otsailean Fernando González kartzelatik irtengo da bere zigorra beteta. Baina, beste hirurek 22 urte eta betiko kartzela-zigor arteko zigorrak dituzte.

Arrazoi hauek direla kausa, Eskoriatzako Ezker Anitza-IU eta Bildu udal taldeek Eskoriatzako Udalbatzarri proposatzen diogu hurrengo akordioak har ditzala:

LEHENENGOA: Estatu Batuetako presidentea dei egin nahi diogu bere betearazle ahalmena balia dezan egoera larri eta bidegabeko honi irtenbide bat emateko. Hau da, gobernu estatubatuarri eskatu preso hauek kartzelatik atera ditzan: Gerardo Hernández Nordelo, Ramón Labañino Salazar eta Antonio Guerrero Rodríguez hiritar kubatarak, hain zuzen ere.

BIGARRENA: Akordio hauek bidaltzea Kubako enbaxadari, Estatu Batuetako enbaxadari, eta Kanpo-arazoetarako Ministerioari.

Inork ez du hitz egin. Bozketa eginda, Urrutia jauna, Madinabeitia jauna eta Arkarazo andrea abstenituta, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

15. GALDE-ESKEAK.

Pintadak

Urrutia jaunak esan du azken egunetan hainbat pintada agertu direla, eta badirela ere denbora asko daramatenak. Zehazki, bat aipatu du "PSOE-PP hiltzailleak, PNV-EA kolaboratzaileak, hau al da zuen bakea!" dioena. Esan du egoera politikoa aldatu egin dela, eta bere ustez badela garaia horiek kentzeko, pintada hori oso aspaldikoa dela, eta beste garai batekoa dela, egoera politikoa oso ezberdina zenekoa.

Merino jaunak esan du pintadek ez diotela trabarik egiten ez badute inor iraintzen eta ez badira inorekin sartzen.

Alkateak jakinarazi du beti ere pintadak kentzen direla, eta behar bada hori kentzea ahaztuko zitzaiela.

Eztabaida txiki bat egon da pintadak adierazpen modu bat diren edo ez.

Zaldibar antzokiko proiektuaren III. faseko obrak: herritarren parte hartzea

Merino jaunak esan du orain dela urte batzuk esan zela atariko obrak egin behar zirenean parte hartze prozesu bat izango zela auzoko biztanleekin, eta galdetu du ea zer dagoen horri buruz.

Alkateak erantzun dio gaur egun bukatzeaz daudela 2. faseko obrak eta orain ikuskatze bisitak egiten ari direla ondoko etxebizitzetan kalterik eragin duten ikusteko; bigarren fasea amaitzeko zain daudela bizilagunak gonbidatu eta adierazteko zertan izan-

go diren hirugarren faseko obrak, bigarren fasea amaitutakoan bilera baterako deia egingo zaiela.

Merino jaunak berriz galdetu dio hirugarren fase horretako proiektua egiterakoan bizilagunen iritzia kontuan hartu izan den.

Alkateak erantzun dio proiektua onartu zela, eta gaur jarri dela jendaurrean. Aurreratu du zenbait kontutan parte hartzea egon daitekeela, eta nahiz eta txikiak izan garrantzia dutela; beste batzuetan, esan du, ez da horrela izango, esaterko atariarekin, baina, kontuan hartu dela ahalik eta azalera txikiena hartzeko auzokoei bere garaian egindako eskaera.

Merino jaunak erantzun dio parte hartzea guztiok defendatzen dutela, baina, ona edo txarra izan daitekeela; Udal honetan erabiltzen den parte hartzea txarra dela, diseinatzerakoan norabide bakarreko bide bezala diseinatzen delako, eta horrela ezin dela hortik atera ez alde batera ez bestera. Kexu da hori ohikoa delako beste kontu batzuetan, esaterkoa, atez atekoan; esan du Udal honetan ez dagoela ez parte hartzerik ez komunikaziorik, Udaletxean egiten dena talde batek esaten duena dela.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 19:55ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beñat Herce LEceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Jose Angel Petralanda Gil
Maidier Landa Ruiz de Azua
Aitor Urrutia Oianguren
Iñaki Madinabeitia Elorza
Rosa Arkarazo Arkarazo
Juan Luis Merino Sanabria.

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamalauko urtarrilaren 28an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beñat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Ezpeleta eta Cantero jaunak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 28 de enero de 2014, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beñat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten los Srs. Ezpeleta y Cantero

16. APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas el 28/05/2013, 23/07/2013, 24/09/2013, 26/11/2013 y 17/12/2013.

17. COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 14 de diciembre de 2013 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

Se da cuenta de forma expresa de la resolución aprobatoria del expediente de modificación de créditos N° 25, cuyo extracto es el que sigue:

Partidas de gasto: créditos que se quieren transferir (altas)

PARTIDA	DENOMINACIÓN	CRÉDITO INICIAL	INCREMENTO	CRÉDITO FINAL
0101.622.451.92.01	ADECUACIÓN DE ZALDIBAR ANTZOKIA	140.007,16	36.700,00	176.707,16
0101.227.432.00.07	ESTUDIO, TRABAJOS TÉCNICOS: URBANISMO	21.200,00	600,00	21.800,00
0201.231.111.00.01	DIETAS, GASTOS DE LOCOMOCIÓN: CONCEJALES	1.000,00	500,00	1.500,00
0201.421.121.00.01	MANCOMUNIDAD:ADM.GENERAL	46.654,49	3,00	46.657,49
0401.626.451.30.01	EQUIPOS PARA PROCESOS DE INFORMACIÓN: BIBLIOTE	-	600,00	600,00
0402.221.455.30.01	ENERGIA ELECTRICA:EUSKAL-TXOKO	347,90	700,00	1.047,90
0404.221.421.10.01	ENERGIA ELECTRICA:KULUNKA	1.804,87	700,00	2.504,87
0406.212.452.30.01	MANTENIMIENTO:MAQUINAS:PISCINA	9.000,00	1.600,00	10.600,00
0102.211.435.00.01	MANTENIMIENTO: VIVIENDAS Y LOCALES	2.695,00	1.100,00	3.795,00
0401.221.451.20.04	COMBUSTIBLE:KULTUR ETXEA	2.194,50	1.000,00	3.194,50
0103.601.531.00.06	INVERSIONES:ELIZATEAK	141.786,28	5.802,59	147.588,87
0501.721.442.10.01	APORTACIONES:MANCOMUNIDAD:RESIDUOS	19.933,52	4,00	19.937,52
TOTAL		386.623,72	49.309,59	435.933,31

Partidas de gasto: créditos que se quieren incorporar (bajas)

PARTIDA	DENOMINACIÓN	CRÉDITO INICIAL	REDUCCIÓN	CRÉDITO FINAL
0701.160.432.00.01	SEGURIDAD SOCIAL:URBANISMO	21.951,87	4.000,00	17.951,87
0701.160.449.00.01	SEGURIDAD SOCIAL:OBRAS Y SERVICIOS	73.079,32	13.000,00	60.079,32
0701.160.452.20.01	SEGURIDAD SOCIAL: POLIDEPORTIVA	17.847,28	6.000,00	11.847,28
0701.160.121.00.01	SEGURIDAD SOCIAL:ADMON GENERAL	21.755,22	1.342,59	20.412,63
0701.162.129.00.01	FORMACIÓN DEL PERSONAL	7.290,00	5.000,00	2.290,00
0303.226.313.70.08	ACTIVIDADES:MUJER	3.000,00	1.700,00	1.300,00
0302.226.313.30.08	ACTIVIDADES:DROGODEPENDENCIA	6.700,00	3.100,00	3.600,00
0302.481.313.30.01	SUBVENCIÓN:DROGODEPENDENCIA	2.000,00	1.000,00	1.000,00
0301.227.313.00.31	CURSILLOS DE SERVICIOS SOCIALES	5.500,00	3.100,00	2.400,00
0301.226.313.00.08	ACTIVIDADES. SERVICIOS SOCIALES	1.600,00	1.600,00	-
